



Biztanleria

Iruñeak 197.993 biztanle zituen 2014ko bukaeran. Horrek esan nahi du biztanle gutxiago zituela urtebete lehenago baino; beraz, biztanle-kopuruan ia geldialdia dago. Iruñeko biztanleriaren mugimendu naturala, hau da, jaiotzen eta heriotzen arteko aldea, oso txikia izan da azken urteotan, eta ia ez du eraginik biztanleen kopuru aldaketan. 2014an, 1.650 jaioberri izan ziren eroldan alta emanak, eta 1.849 baja emanak, heriotza dela-medio. Horrek esan nahi du lehendabiziko aldiz hazkunde begetatiboaren saldoa negatiboa izan dela Iruñean, hau da jende gutxiago jaio da hil baino. Iruñeko biztanlerian, sexuen arteko erlazioak egonkor dirau ohiko parametroen barruan, baina emakumeak gehixeago dira (% 52,4) gizonak baino (% 47,6).

Adin-multzo handietan, aldaketa txiki batzuk izan dira: 14 urtetik behekoen artean ia ez da aldaketarik aurreko urteen aldean; 15-64 urte bitarteko multzoak pixkanaka egin du behera (1.000 lagun gutxiago, azken urtean), eta 65 urtetik gorako multzoak, berriz, gora egin du biztanleria osoaren % 21,6 hartuta.

Etorkinen etorrerak gorabehera (aintzat hartuta gehienak gazteak direla), gazteria-tasak (15-29 urte) beheranzko aldaketa txiki batzuk izan ditu. Gazteria-tasa pixka bat jaisteko arrazoia jaiotza-tasan beherakada handia izan zuten adin-kohorteen lerratzea izan da. Gutxitze horrek bi hamarkada iraun du, 1980tik 2000ra, eta gazteria-tasak ez du gaur egun berriz ere gora egiten, besteak beste, ekonomia-krisi larria eta biztanleriaren egitura bera direla medio. Mendekotasun-tasa ia bi puntu igo da azken urtean, % 54,7raino, eta goranzko erritmoa izan du serie osoan zehar.

Biztanleriaren egoera ezagutzeko beste adierazle garrantzitsu bat zahartze-indizea da, hau da, 65 urtetik gorako eta 15 urtetik behekoen arteko proportzioa. Une hauetan, haxe da aipatu indizea: 65 urtetik gorako 1,6 lagun 15 urtetik beheko adingabe bakoitzeko; indizeak hamarren bat egin du gora azken urtean. Laburbilduz, adinekoak adingabeak baino askoz gehiago dira, eta zenbakiak baieztatzen dute biztanleria gero eta gehiago zahartzen ari dela. Bitxikeria gisa, aurrekoa berreste aldera, esan daiteke ehun urtetik gorako kopurua handi samarra dela, 112 lagun guztira (iaz baino 20 gehiago), gehienbat, emakumeak.

Demografia-datuak labur aztertzen ari garen honetan, ezinbestekoa da immigrazioa berariaz aipatzea. Azken hamarkadan garrantzi handikoa izan da atzeritarren immigrazioa Espainian, Nafarroan, eta Iruñean ere bai. 2014ko abenduaren bukaeran, 20.746 atzeritar zeuden eroldaturik Iruñean, hau da, Iruñeko biztanleen % 10,5. Gure artean, 131 herrialdeetako pertsonak bizi dira, eta haien artean nagusi dira Hego Amerikatik, Europako ekialdetik eta Afrikatik etorritakoak. 2014an, atzeritarren kopuruak berriz ere behera egin zuen 800 lagun inguru. Izan ere, batetik, nazionalizazioak nabarmen igo dira -1.366, 2014an-, eta bestetik, beste atzeritar batzuek alde egin dute beren jatorri-herrialdeetara edota Espainiako zein Europako beste eskualde batzuetara. Horrek ez du esan nahi etorkinen etorrera eten egin denik. Ziur aski herrialdea gogor jo duen egoera ekonomiko zaila ari da migrazio-prozesuari lotutako gertakari horiek guztiak baldintzatzen.

IRUÑEKO DEMOGRAFIA DATUAK, URTE BAKOITZEKO ABENDUAREN 31N

Adierazleak	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Gizonak	95.183 % 47,9	94.903 % 47,8	95.153 % 47,8	94.568 % 47,7	94.495 % 47,7	94.328 % 47,6
Emakumeak	103.576 % 52,1	103.538 % 52,2	103.913 % 52,2	103.539 % 52,3	103.678 % 52,3	103.665 % 52,4
0 – 14 urte	27.313 % 13,74	27.447 % 13,83	27.732 % 13,94	27.479 % 13,87	27.578 % 13,90	27.265 % 13,8
15 – 64 urte	133.698 % 67,26	132.353 % 66,70	131.822 % 66,22	130.065 % 65,65	128.983 % 65,10	127.949 % 64,6
65 urtetik gora	37.748 % 19,00	38.641 % 19,47	39.512 % 19,85	40.563 % 20,47	41.612 % 21,00	42.779 % 21,6
Gazteria-tasa *	34.078 % 17,14	32.248 % 16,25	32.541 % 16,34	31.607 % 15,95	30.901 % 15,60	30.417 % 15,4
Mendekotasun-tasa **	% 48	% 50	% 51	% 52	% 53	% 54,7
Zahartze-indizea ***	1,38	1,40	1,42	1,47	1,50	1,6
Atzerritarrak	25.211 % 12,68	25.347 % 12,9	25.208 % 12,7	23.964 % 12,1	21.654 % 10,9	20.746 % 10,5
Biztanleria, guztira	198.759	198.441	199.066	198.107	198.173	197.993

Iturria: Biztanleen Udal Errolda. Egilea: Iruñeko Udaleko Soziologia Unitatea

** 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen ehunekoa, biztanleria osoan*

*** 65 urtetik gorakoak + 14 urtetik beherakoak, 15 eta 64 urte bitartekoen aldean*

**** 65 urtetik gorakoak, 14 urtetik beherakoen aldean*

65 URTETIK GORAKOAK

Urtea	Gizonen %	Emakumeen %	GUZTIRA > 65
2006	39,6	60,4	35.837
2007	39,7	60,3	36.281
2008	40,2	59,8	37.176
2009	40,2	59,8	37.748
2010	40,3	59,7	38.641
2011	40,5	59,5	39.512
2012	40,7	59,3	40.563

2013	40,9	59,1	41.612
2014	41,1	58,9	42.779

100 urtetik gorakoak

Urtea	Gizonak	Emakumeak	Guztira
2006	22	93	115
2007	18	72	90
2008	9	56	65
2009	11	56	67
2010	9	57	66
2011	7	56	63
2012	15	77	92
2013	15	77	92
2014	16	96	112

Iruñeko biztanle guztiak adinaren eta sexuaren arabera banatuta (2014ko abendua)

ADINA	Gizonak	Gizonen %	Emakumeak	Emakumeen %	GUZTIRA	Guztizkoaren %
0 – 4 urte	4.365	4,6	4.175	4,0	8.540	4,3
5 – 9 urte	4.804	5,1	4.496	4,3	9.300	4,7
10 - 14 urte	4.871	5,2	4.554	4,4	9.425	4,8
15 – 19 urte	4.671	5,0	4.616	4,5	9.287	4,7
20 – 24 urte	4.963	5,3	4.927	4,8	9.890	5,0
25 – 29 urte	5.442	5,8	5.798	5,6	11.240	5,7
30 – 34 urte	6.660	7,1	6.691	6,5	13.351	6,7
35 – 39 urte	7.517	8,0	7.439	7,2	14.956	7,6
40 – 44 urte	7.783	8,3	7.640	7,4	15.423	7,8
45 – 49 urte	7.444	7,9	7.824	7,5	15.268	7,7
50 – 54 urte	6.960	7,4	7.314	7,1	14.274	7,2
55 – 59 urte	6.047	6,4	6.728	6,5	12.775	6,5
60 – 64 urte	5.221	5,5	6.264	6,0	11.485	5,8
65 – 69 urte	5.258	5,6	6.292	6,1	11.550	5,8
70 – 74 urte	4.275	4,5	5.323	5,1	9.598	4,8
75 – 79 urte	3.130	3,3	4.276	4,1	7.406	3,7

80-84 urte	2.720	2,9	4.245	4,1	6.965	3,5
85-89 urte	1.491	1,6	2.967	2,9	4.458	2,3
90-94 urte	575	0,6	1.543	1,5	2.118	1,1
95-99 urte	115	0,1	457	0,4	572	0,3
100 urtetik gora	16	0,0	96	0,1	112	0,1
	94.328	100	103.665	100	197.993	100
GUZTIRA	47,6		52,4		100	